



DDT

DDT

DDT



BERRRIA

Denon artean DDT berria

DDT Banaketak lokal berria ordaintzeko diru-bilketa

Bai, horixe, entzuten duzun bezala. Gaizki xamar geratzen den arren eta dirua eskatzea apur bat kutrea bada ere, orain azalduko dizkizuegu gure negarren arrazoiak.

DDT Banaketak talde autogestionatu eta antiautoritarioa gara eta 1989tik kontrakultura sustatzen dugu. Gure lehenengo argitalpena Barricadaren single pirata ("En Nombre de Dios" eta "Bahía de Pasaia") izan zen, euren diskoetxeak zentsuratu eta guk elkartasunez ateratakoa, Resiste aldzikari anti-kapitalista laguntzeko. Huraxe izan zen gaur egun arte mantentzen ditugun hamaika disko eta liburu kritikoren abiapuntua.

Ehundaka talde eta liburu argitaratu eta hainbeste kontzertu, liburu azoka, aurkezpen eta hitzaldi antolatatu dituen kolektibo politiko batek bizirautea lorpen itzela da, eta gainera, hasierako balio berdintsuekin. Eta belaunaldi berrien erreleboarekin gainera! Nork esan dezake horrelakorik? Horrek erakusten du indartsu eta gogotsu sentitzen garela.

Horretaz aparte, Bilbo Zaharrera mugituko gara, Bilbira, gure etxera, gure auzora. Edozein jabe espekulatzailek edo ostalaritza-katek berenganatu baino lehen, guk erosi dugu lokal bat auzoan. Pena handiz, Martzanako lokala utziko dugu, espazio gentrifikatua ere atzean utzita, baina Bilbiko plazan gure izaera propioa izango duen liburu- eta disko-denda berria eraikitzeko gogoz zein ilusioz gaude.

Zifrekin argiak izango gara: lokala erosteko 60.000 € ordaindu ditugu eta 15.000 €ko obra egingo dugu; beraz, 75.000 € lortu nahiko genituzke. Horretarako, bi hilabete izango ditugu aurretik, eta horrekin batera, guztiontzat izango den espazio berri bat sortzeko aukera edukiko dugu. Zuen laguntza ezinbestekoa da! **Gora jabetza kolektiboa!**

Bilbok erreferentziazko gune politiko bat izatea nahi dugu, belaunaldiz-belaunaldi dena eman duten militante guztiei zor diegulako; hemen ez daudenengatik, erreleboa hartu dutenengatik eta urte guzti hauetan espazioa babestu duzun guztiengatik. Musutruk lan egitea zer den badakigulako, beste kolektibo, proiektu, talde edo liburu batzuentzat aritzea. Laburbilduz, merkatu-arauetatik kanpoko proiektu autogestionatuak laguntzea zer den badakigulako.

Asko eskertuko genizueke edozein motatako dohaintza, eta horrez gain, gure mezua ahal bezain beste zabaltzea, mesedez. Bi hilabete ditugu erronka handi honetarako, eta maiatzean festa bat antolatuko dugu lortutakoa ospatu eta eskertzeko; eta noski, denok gonbidatuta zaudete.

Eskerrik asko aldeaz aurretik, eta besarkada bero bat kolektibo osoaren partez. DDTk maite zaituzte!



DDT Banaketak,
1989tik dirua galtzen.



www.ddtbanaketak.com

@ddtbanaketak

DENON

ARTEAN

ENTRE TODXS

Entre todxs una nueva DDT

Campaña de recaudación de fondos para el nuevo local de DDT Banaketak

Sí, así, como lo oyes. Aunque suene un poco mal y pedir pasta siempre es un poco cutre, ahora te explicamos el porqué de nuestros lloros.

DDT Banaketak somos un colectivo autogestionado y antiautoritario que promueve la contracultura desde 1989, nada más y nada menos. Empezamos con nuestra primera publicación, un single pirata de Barricada ("En Nombre de Dios" y "Bahía de Pa-saia") censurado por su discográfica y solidario por nuestra parte para apoyar a la revista anticapitalista Resiste. Ese fue el pistoletazo de salida para un sin-fín de discos y libros de corte crítico que mantene-mos hasta el día de hoy.

Es de valorar que un colectivo político que haya publicado cientos de bandas y tantos libros, orga-nizado tantos conciertos, ferias de libros, presen-taciones y charlas, siga vivo, y que además lo haga con los mismos valores de cuando empezó. ¡Y con relevo joven en sus filas! ¿Quién puede decir lo mis-mo? Eso demuestra que nos sentimos fuertes y con muchas ganas.

Además, nos mudamos a un local del barrio Bilbao La Vieja, Bilbi, nuestro hogar, nuestro nicho, nues-tro barrio, anticipándonos a cualquier propietario especulador o cadena hostelera. Atrás dejamos el espacio gentrificado de Marzana con mucha pena, pero con unas ganas locas de construir una nueva librería con nuestra propia identidad.

Seremos clarxs con las cifras: el local nos ha costa-do 60.000 € y le vamos a meter 15.000 € de obras, por lo que queremos conseguir 75.000 €. Tenemos dos meses para ello y, con ello, tenemos la oportu-nidad de hacer un nuevo espacio para todxs ¡Y lo conseguiremos con vuestra ayuda, seguro!

¡Larga vida a la propiedad colectiva!

Todo esto lo hacemos porque se lo debemos a to-das lxs militantes que durante generaciones se han dejado la piel para que Bilbo tenga un sitio de refe-rencia política, por las que no están, para el relevo generacional y para todxs vosotrxs que habéis apo-yado el espacio todos estos años. Porque sabemos lo que es currar sin pedir nada a cambio, currar para otros colectivos, otros proyectos, otras bandas, otros libros... en definitiva, ayudar y apoyar aquellos proyectos autogestionados fuera de los cánones mercantiles. Y porque sabemos lo que es perder pasta más que nadie.

Os agradeceríamos mucho cualquier aportación, pero también que difundáis nuestro mensaje todo lo que podáis, por favor. Tenemos dos meses para este reto tan grande que acabará con una fiesta en mayo para celebrar lo conseguido en la que estáis de sobra invitadxs.

Gracias de antemano. Recibid un cariñoso abrazo de parte de todo el colectivo.
DDT os ama.



DDT Banaketak,
palmando pasta desde 1989



www.ddtbanaketak.com

@ddtbanaketak

UNA NUEVA VIDA DDT